



INFORMAZIO ORRIA

Diruaren dohaintza

Nork aurkeztu behar du? (2017-12-30etik aurrera sortutako zerga egitateak)

1. **Dirua jasotzen duen pertsonak**, baldin eta ohiko bizilekua Gipuzkoan badu sortzapen egunean (kontratua egiten denean).

Oro har, **Gipuzkoako araudia** aplikatuko da (3/1990 FA, urtarrilaren 11koa).

Hala ere, **Estatuko araudia** aplikatuko da, eta ez Gipuzkoakoa, baldin eta dirua jasotzen duenak ohiko bizilekua Gipuzkoan badu sortzapen egunean, baina zergaren sortzapen egunaren aurreko 5 urteetako denboraldian egun gehiago pasa baditu lurralde erkidean.

- ❖ *Zein autonomia-erkidegotako araudia aplikatu behar den zehazteko, kontuan izan behar da zein autonomia-erkidegotan igaro duen egunik gehien sortzapen egunaren aurreko 5 urteetako denboraldian, kalkulu horretarako Euskal Autonomia Erkidegoan igarotako egunak kontuan hartu gabe.*

2. Dohaintza jasotzen duenak **atzerrian** badu ohiko bizilekua, atalarekin kontsulta egin (943 113 000).

Zenbat egun daukazu aitortpena aurkezteko?

30 lanegun, dohaintza egin ondorengo egunetik aurrera.

Zein pauso egin behar dira?

1. Bildu itzazu ondoko agiriak:

- ❖ **Subjektu bakoitzeko 671 eredu bat**, hemen eskura dezakezuna:

- baimendutako estankoetan.
- interneten: <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ogasuna/zergak/eredua/671>

Helbide horretan zerga honi buruzko informazio guztia duzu baita diruaren dohaintza egiteko dokumentu pribatuaren eredu bat ere.

- ❖ **Dohaintza dokumentuaren jatorrizko alea eta kopia** (dohaintzaren zenbatekoa jarri behar du).
- ❖ **Dirua eman eta jasotzen dutenen Nortasun Agirien fotokopia**.
- ❖ **Ahaidetasunaren justifikazio dokumentala** (hala nola, famili liburua). Ahaidetasun edo harremana 3. Taldekoa bada (lehengusu, koinatu/a, arrotza..), ez da beharrezkoa agiri hori aurkeztea.

2. Bete ereduja jarraian adierazten den eran:

- ❖ **Subjektu pasiboa**: dirua jasotzen duenaren datuak.
- ❖ **Eskualdatzailea**: dirua ematen duenaren datuak.
- ❖ **Ondasun eta eskubideen benetako balioa**: ematen den diru kopurua.
- ❖ **Ordaindu beharreko kuota**: 3/1990 Foru Arauan ezarritako eskalaren arabera kalkulatzen da (lurralde erkideko araudia aplikatzen denean izan ezik). Araudia eta informazio guztia zergen webgunean duzu.
- ❖ **Sinatu aitortpena**.

3. Emaitza ordaintzekoa bada, eraman 671 ereduja banketxe edo aurrezki kutxa batera eta egin bertan ordainketa

4. Ekarki agiri guztiak gure bulegoetara